



ARG.: Mikipons, Wikimedia

Zuhaitz lepatuak, ontzigintzatik jasangarritasunera

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute · Elhuyar Zientzia

Euskal Herriko baso-paisaia tradizionalaren ezinbesteko osagai dira zuhaitz lepatuak edo zuhaitz motzak. Balio kultural eta historikoa izateaz gain, XIII. mendetik —eta ia 600 urtez— garatzen eta fintzen joan zen baso-kudeaketa jasangarri baten lekuko ere badira. Beharrak eraginda, euskaldunak gai izan ziren ontzigintzaren eta garai hartako jarduera ekonomiko garrantzitsuenen egur-beharrak baso-mota bakarrean uztartzeko. Alvaro Aragón Ruano ikertzaileak uste du jasangarritasunerako giltzarria aurkitu zutela.

Egurra lortzeko behin eta berriz moztutako zuhaitzak dira zuhaitz lepatuak. Zuhaitzen enborra mantendu, eta adarrak ustiatzen zituzten, zuhaitz zahar baina etengabe emankorrek lortuta. “Mende haietan, interes asko zeuden basoaren inguruan. Gipuzkoan, Bizkaian eta Lapurdin ontzigintza punta-puntakoa zen, ia XVI. mendearen bukaera arte. Burdingintza, abeltzaintza eta nekazaritza ere jarduera ekonomiko garrantzitsuak ziren, eta denak

zeuden egurrari oso lotuak. Nola orekatu guztien beharrak?”, dio Álvaro Aragón Ruano EHUko historialariak.

“Burdigintzan egur-ikatzak behar zuten. Ontzigintzak, justu kontrakoa: batetik, zuhaitz luze eta zuzenak, oholak eskuratzeko; baina, batez ere, zurokerrak behar zituen itsasontziaren egitura bermatzeko, saihests biribilduak lortzeko. Eta abel-



tzaintzak ezkurak behar zituen. Jarduera bakoitzarentzat baso-mota bat egokitu beharrean, denen beharrak aseko zituen baso jasangarri bat irudikatzea lortu zuten: baso lepatuak”, dio Aragónek.

Aurretik, bi baso-eredu guztiz desberdinak sortzen zituzten: zuhaitz tantaia —zuhaitz luze eta zuzen-zuzenak, zuhaitzak elkarrengandik oso gertu landatuta lortzen zituztenak— eta txaradiak —zuhaitzak hondo-hondotik moztean sortzen diren adar fin ugari zuhaitzak, 12-15 urtero ikatzetarako mozten zirenak—. Txaradiak zuhaitz lepatu bihurtzea izan zen gakoa. “Enborraren bizpahiru metroko altueran adar nagusia mozten zioten zuhaitzari, eta alboetako 2-3 adar uzten zizkieten, goraka hazi eta ontzigitzarako behar ziren zurokerrak sor zitezen. Haritzekin egiten zuten, batez ere. Haritzak 60-100 urte zituenean mozten zizkieten adar sendo haiek. Baina, bitartean, kimu berriak hazten ziren, eta adar horiek 8-10 urtetik behin mozten zituzten, burdintzarako egur-ikatz lortzeko. Era berean, zuhaitz lepatuen ezkurak ziren txerri, behi eta beste abereen elikaduraren oinarri”. Eredu silbopastorala zen.

Zuhaitz lepatuen eredia hainbeste findu zuten, ezen ontzigitzarako behar zituzten zuroker biri-


bilduak eskuratzeko teknika berezi bat ere garatu baitzuten: adar nagusiak gidatu egiten zituzten, forma oker estandarizatuak jarraituz haz zitezen. “Hipotesi bat da sokak eta egurrak erabiltzen zituztela adarrak gidatzeko. Badirudi euskaldunak zirela zuhaitz lepatuak gidatzen zituzten bakarrak. Ipina-bar deitzen zieten”, dio Aragónek.

“Euskaldunak ziren zuhaitz lepatuak gidatzen zituzten bakarrak”

Ontzigitzak indarra galdu zuenean, gidatzeari utzi, eta zuhaitz lepatuak burdintzarako eta ikatza egiteko erabiltzen jarraitu zuten. Haritzak lepatzetik pagoak lepatzera pasa ziren orduan, eta horiek dira gaur egun gure paisaian bizirauten duten pago motz zaharrak.

Mende luzez basoaren kudeaketa jasangarria egin zuten horrela euskaldunek. Egungo zuhaitzlandaketak ez bezala, zuhaitz lepatuak baso helarduak ziren, eta, beraz, bioaniztasunaren gordeleku.

Egungo pago motzetan ikusten da oraindik: zulo eta usteltzegune ugari izaten dute, eta zulo bihurritu horiek bizileku eta habi toki ezin hobek dira hegaztien-tzat. Askotan baliatzen dituzte garrapoak, amilotx urdinak edo kaskabeltzak. Berdin, basoko saguzarrek. Haien egur ustelaz elikatzen dira onddo eta intsektu saprofito asko. Eta, enbor eta adarretan, alga, liken, goroldio zein iratzeak finkatzen dira. ●



Sokak eta egurrak erabiliz gidatzen zuten adar nagusien hazkuntza, eta, gero, txantiloak erabilia mozten zituzten, ontziak egiteko behar ziren forma estandarizatuak eskuratzeko. Irudien egilea: Mikel Leoz /© ALBAOLA.